



29/ igandea **10:00** San Migel plazan
IX. ARTISAUTZA ETA JANARI AZOKA
 25 Postu baino gehiago, herriko, bailarako zein Euskal Herriko artisauak eta elikagai ekoizleak.
 · Publiko guztia



29/ igandea **19:00** San Migel plazan
AMAK TALDEA
 90.hamarkadako trikitixaren loraldian, ordura arte oso gizona zen trikiti mundua konkistatu zuten 4 emakumek osatutako taldea da AMAK. Beraien trikitixa eta panderoak astinduz Euskal Herriko plaza gehientsuenak zapaldu dituzten eskarmentu handiko musikariak dira. Lau pandero, lau triki eta lau ahots soilik oholztan.
 · Euskaraz
 · Publiko guztia

NOTA
 Toda la información en castellano en www.irura.eus o en la oficina de cultura



GOIZA PASA 2022
 2019tik 2011ra jaiotako haurrentzat udaleku irekiak antolatu dira.

- Uztailaren 4tik 15era
- Uztailaren 18tik 29ra

2010etik 2006ra jaiotako nerabeentzat hainbat irteera/ ekintza antolatu dira uztailean zehar.

- Izen ematea maiatzaren 2tik 12ra elektronikoki.
- Informazio gehiago www.irura.eus web orrialdean.

IRURAKO AURREKONTU PARTEHARTZAILEAK

1.- PROPOSAMENAK

NON? Udaletxeko harrera bulegoan, kulturuneko postontzian, www.irura.eus web gunean edo APPko parte hartzea atalean

NORK? 16 urtetik gorako iruratarrek

NOIZ? Apirilaren 25etik maiatzaren 5era

BALDINTZAK:

- Interes publikoari erantzutea, ez interes pribatuari.
- Udalaren kompetentzia izatea
- Teknikoki bideragarria izatea
- Aurreikusitako diru kopuruarekin bateragarria izatea (30.000 €)
- Inbertsio motako proposamena izatea

2.-TEKNIKARIAREN AZTERKETA

Udaleko bulego teknikoak proposamen ezberdinen bideragarritasuna aztertuko du

3.- PROPOSAMENEN BOZKA

Maiatzaren 23tik 27ra
 Udaletxeko harrera bulegoan, kulturuneko postontzian, www.irura.eus web gunean edo APPko parte hartzea atalean
 Informazio gehiago www.irura.eus
Eta zuk Iruran zer egin nahi duzu?



ZURE ETXEAN nahi ez baduzu, kalean ere **EZ**.

Jaso zure txakurraren gorotzak eta Irura garbi mantendu

601,01 €-ra arteko isuna



MAIATZAK 17, LGTBIQ + FOBIAREN AURKAKO EGUNA



IRURAN LGTBIQ + FOBIARIK EZ!!



Maiatzaren 20tik 27ra
KULTUR ANIZTASUNAREN ASTEA

Maiatzak 29
 San Migel plazan
IX. ARTISAUTZA eta JANARI AZOKA



euskara



castellano



02/ astelehena **17:00** Herri eskolako aretoan
HERRI BATZARRA

Irurako herri-ostatu sortzeko partaidetza-prozesuaren barruan egingo den hirugarren herri-batzarra izango da eta ostatu espazioen erabileraren gaia jorratuko da.

- Gazte eta helduak
- Gonbidapena eskatzen du

Zaintza zerbitzua egongo da: interesatuak 943 692 674 telefonora deitu edo gazteria@irura.eus helbidera mezu bat bidali maiatzaren 2a, 12:00ak baino lehen.

04/ asteazkena **18:30** Liburutegian
IRAKURLE TALDEA

Urt Zubiaurreren "IZENIK GABEKO LURRAK" ipuin bildumaz solastuko gara oraingoan. Idazlea saioan izango da.

- Euskaraz
- Helduak

(Irakurle taldeak antolatuta)



07/ larunbata **14:30** San Migel plazan
KANTU BAZKARIA

Kantu bazkaria bueltan da, aurtengoan ere euskal parrilaren eskutik izango da bazkaria eta Joxe Mendizabalen musikarekin girotuko da eguna.

- Euskaraz
- Publiko guztia
- Txartelak salgai Xare kafetegian eta Errekalde tabernan maiatzaren 1 arte.

(Irurako gazte asanbladak antolatuta)



14/ larunbata **10:00** Irurako ikastolan
IRURAKO IKASTOLAREN EGUNA

Irurako Ikastolaren eguna ospatuko da urtero bezala. Besteak beste goizean mendi ibilaldia izango da, ondoren ikastolako gurasoek prestatutako paella bazkaltzeko aukera egongo da eta arratsaldean jolasak antolatuko dira. Ohikoa den mariskadaren zozketa ere izango da.

- Ikastolako guraso eta komunitateko parte direnak

(Irurako ikastolak antolatuta)

18/ asteazkena **18:00** Herri eskolako aretoan
NORK BERE BURUA ONDO ZAINTZEN ETA MAITATZEN IKASI

Tailer-tertulia hau osasun mentala, fisikoa eta emozionala zaintzeaz, autoestimua, autoezagutzaz eta garapen pertsonal eta kolektiboaz hitz egiteko gunea da.

- Ele bitan
- Emakumeak
- Gonbidapena eskatzen du



KULTUR ANIZTASUNAREN ASTEA
Maiatzaren 20tik 27ra

20/ ostirala **17:30** Gazte Alaiak elkartearen
MUNDUKO SUKALDARITZA-TAILERRA

Munduko hainbat txokotako platerak prestatuko dira kultura aniztetako irurarrek gidatuta. Ondoren, afari-merienda egingo da prestatutakoa dastatzeko.

- Ele bitan
- Gazte eta helduak
- Gobidapena eskatzen du
- Oharra: Gehieneko plaza kopurua 15 lagun

(Irura Bizi elkarteak antolatuta)



20/ ostirala
PINTXOPOTE KULTURANIZTUNA

Munduko hainbat txokotako musika eta pintxoak Irurako taberna hauetan: Aizpurua, Enara, Errekalde eta Trinketea.

- Gazte eta helduak

(Irura Bizi elkarteak sustatuta)

20/ ostirala **17:00** Herri eskolako aretoan
LAS DIVINAS IPUIN KONTAKETA ETA TRENTZA TAILERRA

Las Divinas (Gipuzkoako emakume nigeriarren elkarte) elkartearen eskutik, ipuin kontaketa euskaraz eta igbo hizkuntzan.

Ondoren, trentza tailerra.

- Euskaraz eta Igbo hizkuntzetan
- Haurrak
- Gobidapena eskatzen du

(Irura Moretuz emakume taldeak antolatuta)



21/ larunbata
KULTUR ANIZTASUNAREN MUNDU EGUNA

Aste guztian zehar gaiaren lanketa egingo da ludotekan eta gaztelekuetan.

Halaber, Irurako Irakurle taldeak ere, kultura aniztasunaren gaia jorratuko du ekaineko liburuarekin. Horretarako, Patxi Zubizarretaren Eztia eta Ozpina liburua irakurriko dute.

(Irura Bizi elkarteak sustatuta)

27/ ostirala **18:00** Kulturunean
"MUNDUKO EMAKUMEAK" NARRAZIO MUSIKATUA

Munduak badu txokorik, eta txoko horietako batzuetan istorioak suertatzen dira, sortu, eraldatu. Eta hala, helduentzako ipuin kontaketa musikatu honetan bost emakumeren istorioak kontaketa dituzte, munduko bazterretan bizi diren emakume horienak.

Haien indarrak elkartuz eta beraian sinetsiz lortuak dira kontakizun hauek.

Kontalaria: Ameli eta Xirrikituen jostunak

- Euskaraz
- Gazte eta helduak
- Gobidapena eskatzen du



28/ larunbata **16:00** San Migel plazan
HONDARREZKO ESKULTUREN TAILERRA

Ludoteka zerbitzuko ikasturteari amaiera emateko hondarrezko eskulturen tailerra antolatu da.

Izen emate kopuruaren arabera txanda ezberdinak egingo dira eta 2016 eta 2017an jaiotako haurren parte hartzea gurasoekin izango da.

- Euskaraz
- 2017 eta 2011 urte bitartean jaiotakoentzat
- Izen ematea kultura bulegoan maiatzaren 20 arte.

